



IKASTETXEKO URTEKO MEMORIA

2018-2019

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena.....	3
2.2. Irakasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa	7
3.1.1. Ikastetxearen funtzionamendu atalak.....	8
3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak.....	10
3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala.....	12
3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala.....	13
3.1.1. Irakasleriaren koordinazioa.....	15
3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarriak	16
4. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK	17
5. ESKOLAKO ZERBITZUAK.....	18
6. EKONOMIA-KUDEAKETARAKO PLANAREN EBALUAZIOA	19
7. HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIO PLANA	20
8. IUP-REN GARAPENAREN JARRAIPENAREN EBALUAZIOA	21
9. ONDORIOAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK	22

1. SARRERA

2018-19 ikasturteko memoria da hau. Memoria honetan, Ikastetxean Urteko Plana zenbateraino bete den aztertuko dugu, ondorioak atera eta hurrengo urterako hobekuntza proposamenak egingo ditugu. Honetaz gain, lehentasunak jarriko ditugu hurrengo Urteko Planean helburutzat hartuko direnak.

Ikasturteko planaren garapenean eragina izan duten aspektu edota faktoreak

Ikasturteko helburuak lortzeko hainbat ekintza garatu dira ikasturteko planean aipatutakoak eta memoria honetan balioztatuak.

Egiteko prozedura eta lan-metodologia

Urteko Planean aipatutako guztia aurrera eraman ahal izateko Klaustroaren inplikazioa eta elkarlana egon da. Baita, Batzordeen lana, Berritzegunearen aholkularitza, beste ikastetxeekin izandako harremanak eta Guraso Elkartearen inplikazioa behar-beharrezkoak izan dira

Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak

	bai	ez	zer-nola
Klaustroa	x		Pedagogikan egindakoa eta zikloetatik jasotako ekarpenen laburpenari onarpena ematen dio.
Batzorde pedagogikoa	x		Proposamenak egin, zikloetako ekarpenak bildu, aztertu, eta aurrera eramatea nahi ditugun proiektuak gauzatzen lagundu.
Zikloetako taldeak	x		Beharrak eta hobekuntza proposamenak; Pedagogikako ekarpenak eta proposamenak aztertu, ekarpenak egin.
Mailetako taldeak	x		Egunerokotasunean gertatzen diren hainbat arazo aztertu, hausnartu eta proposamenak egin
Lan taldeak- Mintegiak	x		Martxan jartzea nahi ditugun lanei eta proiektuei bultzadaxo bat ematen diete. Hainbat formakuntzetatik jasotako materiala, ideia eta abar eztabaidatzea eta klaustroan zabaltzea izango da haien egitekoa.
Berritzegunea	x		Aholkularitza eta formazioa eskeintzea da beraien betebeharra: antolatu dituzten mintegietan parte hartu eta jasotakoa eskolara ekarri.
Proiektuen arduradunak	x		Proiektuen ekarpenak, proposamenak... Pedagogikara helarazi; hobekuntzak proposatu; beste ekintzekiko lotura bermatu.
Zikloetako koordinatzaileak	x		Egite prozesuan partaide zuzenak dira eta ziklo ezberdinen arteko zubilan egiten dute.
Ikasleriaren ordezkariak	x		Ikastetxean egiten diren ekintza desberdinetan parte hartzen eta ekimenak anrolatzen.
Familien ordezkariak	x		OOG eta Guraso Elkartearen bidez ekarpenak egiten dituzte. Zuzendaritza taldearekin behar beste aldiz elkartzen dira gure ikastetxeko martxa ahalik eta onena izan dadin.
Admin. eta Zerbitzuen langileria	x		OOGren bidez eta egunerokotasunean.
Zuzendaritza taldea	x		Plangintza proposatu, koordinatu, proposamenak jaso, sintesiak eta ondorioak atera. Plana bultzatu.
Entrepresak-erakundeak	x		Herri mailan egiten diren eta proposatzen diren ekintza desberdinen bultzatzaile eta parte hartzaile.

Datorren ikasturtean jarraipena izango dute goian aipatutako aspektuak eta hurrengo ikasturteko Urteko Planean islada izango dute.

2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena

1. Helburua **EBALUAZIOA:** Programazio didaktikoetan agertzen diren ebaluazio irizpideetako lorpen adierazleak aztertu eta hauetan oinarrituz gutxiengoak eta irteera profila zehaztu.

TALDEAK [Ikasleak, OOG, GE, PB, Zuz. T, etapa, zikloa, maila, ...)	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak finkatu.
Klaustroa eta Zuzendaritza taldea	Lorpen adierazleak eta gutxiengoak zehaztu dira maila guztietan. Programazioetan txertatu dira.	Dokumentu bat sortu gutxiengo hauek arloka eta mailaka antolatuz.	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio saioen funtzionamendua arindu - Ebaluazioaren inguruko formazioa jaso eta gai honen inguruan adostasunak lortze aldera mintegi bat sortu.
	Mailaz igarotzeko irizpideak minimoekin batera landu ditugu. Ebaluazio saioetan ikasleen egoera aztertu da eta kasuan kasu erabakiak adostu eta hartu dira.	Ebaluazioa sakontasunean landuko dugu 2019/2020 ikasturtean eta irizpideak dokumentu batean jasoko dira.	
	Haur eta Lehen hezkuntzako ebaluazio saioetarako txantiloak sortu eta osatu dira. Kasu gehienetan irakasleriaren erantzuna oso ona izan da. Ikasleak osotasunean eta objetiboki ebaluatzen ditu. Hobekuntza proposamenak biltzen dituen ebaluazio hezigarri bat proposatzen du.	Ebaluazio saioak informazio trukatzeko soila ez izatearen aldera, hurrengo ikasturterako dokumento komuna erabiltzea proposatzen da eta guztiok dokumentu bera betetzea (DRIVE bidez). Pantalla erabiliko da informazioa ikusteko eta erabakiak denon artean hartuko dira, alderdi hau guztien artean osatuz. Ikaslearen hobekuntzarako proposamenak azpimarratuko dira.	

2. Helburua **IKT:** Curriculumeko edukiak garatzeko erabiltzen diren hainbat aplikazio eta programa berriren formakuntza jaso erabilpena sustatzeko.

TALDEAK [Ikasleak, OOG, GE, PB, Zuz. T, etapa, zikloa, maila, ...)	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak finkatu.
IKT taldea eta zuzendaritza taldea	Baliabide desberdinak jarri dira irakasleen eskura irratzaioa zein bestelako jarduerak burutzeko. Irratzaioa martxan jarri da Lehen Hezkuntzan eta planifikazioa bete da. Egutegia moldatu behar izan denean aldaketak egin dira. Irratzaio guztiak burutu dira.	HHn irratzaioaren erabilera areagotzeko proposamenak jasoko dira. Nola funtzionatuko dugun finkatu.	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleei zuzendutako formazioa - HHn irratzaioaren funtzionamendua adostu. - Irteera profila zehaztu.

	5 eta 6. mailetan aplikazio desberdinen erabilera sistematizatzen hasi da (drive, Kalkulu orria, irudien edizioa,...).	<ul style="list-style-type: none"> - 2019/2020 ikasturte hasieran formazio txiki bat emango zaie 5 eta 6. mailako irakasleei (kalkulu orria, classroom). - DRIVEaren erabileraren inguruko formazioa klaustro guztiari eskeinitako zaio. - Lehen hezkuntzako ikasleen profila zehaztea. 	
--	--	--	--

3. Helburua

ELKARBIZITZA: ikasle bakoitzari norbanako aske eta gizarte osasuntsu eta moderno baten partaide gisa, osotasunezko eta gogobeteko bizitza sortzen lagunduko dioten baliabide pertsonalak, sozialak, kulturalak, emozionalak, etab... eskeintzea. Honen ildotik, gure eskola jazarpenaren kontrako gunea bilakatu. Pertsona guztiekiko errespetua bultzatu.

TALDEAK [Ikasleak, OOG, GE, PB, Zuz. T, etapa, zikloa, maila, ...]	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak finkatu.
Talde pedagogikoa, BAT, Berritzegunea, Klasustroa, BERDINDU, Elkarbizitza taldea	Talde kohesiorako dinamikak adostu ditugu eta tutoretza planean txertatzen hasita gaude.	Urtero sasoi desberdinetan, talde kohesiorako dinamikak sistematizatu eta tutoretza planean txertatzen joan.	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte hasieran guraso bileretan jazarpenaren kontrako sentsibilizazioa egin. - Tutoretza plana osatu eta berritzi.
	Elkarbizitza eta Hezkidetzaren inguruan dauden data esanguratsuak kontuan hartu dira eta ekintza desberdinak burutu dira. Ikasle eta irakasleen aldetik balorazioa positiboa izan da.	Ikastetxean aurrera daramatzagun ekintzen planifikazio on bat egin beste jarduerak batzuekin oztupo ez izateko.	
	Aniztasunaren inguruko formazioa jaso dugu. 3 saio burutu ditugu BERDINDU eskolak emanda. NAHIKO programan parte hartu da eta geletan hamen jasotakoa eskeini zaie ikasleei.	Zikloan partekatzea bertan ikasitakoa beste irakasleek ere inplementatzeko.	
	PEG BIZIKASI ekimena aurrera eraman da. Berritzegunearen aholkularitza jaso da eta sentsibilizazio saioak burutu dira ikastolako komunitate osoaren partaidetzarekin. Diagnostika egin da zein puntutan geunden ikusteko. Proiektua osatu da eta markatu ditugun helburu guztiak bete dira. BAT taldea eratu da.	Gurasoei sentsibilizazio saioak ikasturte hasierako bileretan egingo dira guztiei helarazteko. BAT taldeko kide berriak izendatu.	
3. zikoko tutoretza planean jazarpenaren kontrako ekintzak txertatu dira. Gai honen inguruan egin den lanketa beste zikloetako tutoretza planetan ere txertatu dira.	2019/20 ikasturtean tutoretza planak osatuz joango gara eta dokumentu osoa berriztuko dugu. Bertan tutoretza saioetan egingo diren jarduerak guztiak txertatuko ditugu.		

4. Helburua

ANIZTASUNAREN TRATAERA: Aniztasunari erantzuna bermatzeko aurten ditugun giza-baliabideak erabili: bi irakasle gelan.

TALDEAK [Ikasleak, OOG, GE, PB, Zuz. T, etapa, zikloa, maila, ...]	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak finkatu.
Zuzendaritza, Berritzegunea, klaustroa	lazko memoriako hobekuntza proposamenak bete dira. 2 irakasle gelan izatea bultzatu da eta korrdinazio saioak ziurtatu dira. Honen inguruko formazioa klaustro osoak jaso du. Ziklo bakoitzean laguntzarako irakasle bat izan dugu eta genituen baliabideak aprobetxatu ditugu.	Klaustro osoaren kontzientziazioa bultzatzea. 2019-2020 ikasturtean izango ditugun baliabideak kontuan hartuta, mailako tutoreen artean emango dira behar diren laguntzak.	- Laguntzak aintzat hartu ordutegiak egiteko orduan. - PT eta tutoren arteko koordinazioa ziurtatu.

5. Helburua

HIZKUNTZA - KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA GARATU

- Ikasleei irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko, ikastetxean hartuko diren erabaki guztiak jasoko duen dokumentua sortu, hau da, "Irakurketa Plana"
- Ahozko Komunikazio gaitasuna landu, ikasitako eta egindako lanaz baliatuz.

TALDEAK [Ikasleak, OOG, GE, PB, Zuz. T, etapa, zikloa, maila, ...]	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak finkatu.
Hizkuntza mintegia, Klaustroa, Beritzegunea	Irratsaioak Lehen Hezkuntzan burutu dira. Egindako plangintza bete da.	HHn irratsaioaren erabilera areagotzeko proposamenak jasoko dira. Nola funtzionatuko dugun finkatu.	- Irakurketa planaren helburuak inplementatzen joan.
	Bularretik mintzorako programa inplementatu da. Formazioa bukatutzat eman da.	Nahiz eta formazioa bukatutzat emana izan UDetan jarduerak sistematizatu.	
	Irakurketa plana osatu da: diagnosis, planifikazioa eta plana gauzatzea.	2019/20 ikasturtean irakurketa planaren hainbat helburu ikastetxeko urteko planean planifikatuko dira eta hauek Aurrera eramango ditugu.	

6. Helburua

A 21: Jasangarritasunarekin erlazionatuta eta hondakinen kudeaketan beste urrats bat eman nahian eskolara ontzi horiko zaborrik ez ekarri eta sortzen duguna era egokian sailkatu. Aurten, "Hondakinak: Murriztu, berrerabili eta birziklatu" gaia landuko da.

TALDEAK [Ikasleak, OOG, GE, PB, Zuz. T, etapa, zikloa, maila, ...]	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak finkatu.
--	---	-----------------------------	---

EA 21 taldea, Zuzendaritza, Klaustroa, ikasleak, familiak	Ikasturteko planean finkatutako gutxiengo betebeharrak bete dira, hori bai, inplikazio txikiarekin. Instituzioari begira eggindakoak aurrera atera dira.		- Irakasleen sentsibilizazioa - Eskolako ingurua garbitu iraila-urria bitartean
	Urteko planean adostutako jarduerak ondo burutu dira.	Irakasleen sentsibilizazioa bermatu ikasleengan eragina izateko eta haiek ohiturak barneratzeko.	
	Beste ikastetxeekin batera Udal foroan eta Udal batzarrean parte hartu da. Ikasleen inplikazioa bermatu da.		

7. Helburua

EUSKARA: Euskara eta euskal kultura “bizi nahia” izan dadin gogotsu lanean jarraitu. Egun dugun maila hobetzeko, gu eredu garelarik, datoetan oinarrituz, sentsibilizazio lanerako formazioa bermatu familientzat eta langileentzat.

TALDEAK [Ikasleak, OOG, GE, PB, Zuz. T, etapa, zikloa, maila, ...)	Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.	Hobekuntzarako proposamenak	Hobekuntza proposamenak kontuan hartuz, lehentasunak finkatu.
EUBIZI taldea, zuzendaritza taldea, ikasleak, gurasoak	Helburuak bete dira. Adin desberdinetakoen arteko euskara transmisioa bultzatu da. Urteko planean proposatuo ekintza guztiak Aurrera eraman dira.	Euskararen erabilera bultzatzeko kanpainak berrantolatu eta ideia berriak proposatu.	- Gurasoenganako sentsibilizazioa zabaltzea - Ideia berriak eskuratzea.
	Familiei euskararen erabileraren garrantzia helarazi zaie.	Geletako bileretan kontzientziazio sakonagoa egin.	

2.2. Ikasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa

Aztertutako esparrua ¹	Egoeraren azterketa, eta zergatien laburpena	Hobekuntza eta jarraipenerako proposamenak
Ikasleen emaitzak (Eranskina 1)	<p>1. maila: Arlo guztiak gaintituak %99. Ez igaro %1</p> <p>2. maila: Arlo guztiak gaintitu %89. Ez igaro %4</p> <p>3. maila: Arlo guztiak gaintitu %89. Ez igaro %4</p> <p>4. maila: Arlo guztiak gaintitu %89. Ez igaro %3</p> <p>5. maila: Arlo guztiak gaintitu %92. Ez igaro %0</p> <p>6. maila: Arlo guztiak gaintitu %95. Ez igaro %1</p> <p>Aurreko ikasturtearekin konparatuz igaro ez duten haurren kopurua igo egin da maila txikietan.</p> <p>Orain arte, haurrak 4-5-6. Mailetan errepikatu izan dute gehien bat.</p> <p>Ikasle hauek oinarrietan dituzte zailtasun handienak, gehienetan; beraz, laguntzeko neurriak lehen bait lehen ematea erabaki da.</p>	<p>- Errepikatzeak haurrari oinarriak sendotzeko denbora gehiago eskeiniko dio.</p> <p>- Igaro ez duten haur hauei eta arloren bat gaintitu gabe izan dutenei norbanako plana egingo zaie.</p>
Ebaluazio Diagnostikoa	<p>Ikasturte honetan 4. Mailako ikasleek Ebaluazio Diagnostiko frogara egin dute.</p> <p>a) Talde guztietako ikasle denei ebaluatu zitzaizkien ondorengo kompetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia - Gaztelaniazko hizkuntza komunikaziorako kompetentzia - Matematikarako kompetentzia <p>b) Talde guztietako ikasle denei ebaluatu zitzaizkien ondorengo kompetentziak, blokeka banatuta.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zientzia-kulturarako kompetentzia ala ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia. - Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia ala euskarazko, gaztelaniazko ala ingelesezko idazmena. <p>c) Ikasle guztiek haien testuinguruari buruzko galdetegi bat bete zuten.</p>	<p>Oraindik emaitzak eskura ez ditugunez hobekuntza eta jarraipenerako proposamenak aurrerago definituko ditugu.</p>
Ebaluazio saiokak	<p>Ikasle taldeko eta banakako ikuspegia landu da. Ebaluazio txantiloia bat prestatu da irakasle guztiek betetzeko (bakoitzak berea osatu du). Hobekuntza proposamenak txertatzeko aukera egon da.</p> <p>Irakasle batzuk informazio trukatzeko hutsa dela pentsatzen dute eta gurasoei informazioa emateko baliagarria dela.</p> <p>Oraindik ere denbora asko pasatzen dugu informazioa transmititzen hobekuntzarako proposamenak planteatzen baino.</p>	<p>Ebaluazioak hezigarria izan behar du.</p> <p>Ebaluazio saioretarako proposamen berri bat aztertuko da. Dokumentu bateratu bat, non irakasle bakoitzak bere aportazioak eta hobekuntza proposamenak egingo dituen. Guztion artean eta pantallaren aurrean erabakiak hartuko eta idatziko dira.</p>
Ebaluazioa (orokorrean)	<p>Guztiok ildo berdina jarraitzea komeni da. Erregistroak, dokumentu desberdinak,... Antolaketa berdintsua.</p>	<p>Ebaluazio karpeta antolatu bat erabiliko da.</p>

3.1.1. Ikastetxearen funtzionamendu atalak

IUPean planifikatutakoa kontuan hartutik funtzionamendurako alderdi orokorren balorazioaren laburpena eta ondorioak

	Alderdi positiboak	Zailtasunak	Zergatiak	Hobekuntza proposamenak
Tutoretzen banaketa	Tutoretzen banaketa egiterakoan hainbat irizpide kontutan izan dira (irakasleak ziklo osoa egitea, taldearen ibilbidea/ezaugarriak,...)	Batzuetan tutoretzak jarraipena izatea ezinezkoa egiten da.	Irakasleen finkotasun ezagatik (urtero aldaketa asko sufritu behar iaizten dugu).	Maila bakoitzean gutxienez irakasle finko bat egotea ziurtatu.
Tutoretza Plana	Dokumentu bat sortzen hasi gara erabilgarria izan dadin. Bertan tutoretza saioan egingo diren jarduerak txertatuko ditugu mailaka.	Adostasunetara heltzea	Klaustro kopurutsua eta aldakorra.	- Dokumentu erabilgarria osatzea. Bertan tutoretza saioan egingo diren jarduerak txertatuko ditugu mailaka. - Tutoretza plan osoa berriztu
Irakasle ordutegiak	Ordutegiak ondo baloratuak izan dira. Koordinazio saioak ahalbidetu dira.	Gero eta baldintza gehiago kontutan izaten ditugu baliabideak ondo aprobetxatzeko. Denbora falta mailaka eta zikloa hainbat gai lantzeko sakonki.	Eskolako kasuistika dela eta. Ordutegi eta eraikin desberdinak ditugulako	2019-20 ikasturtean bi ordutegi izatera joko dugu. Hau gauzatzeko prozesua irekiko da (klaustro, familia, OOG)
Eskolako ordutegia		HHn ordutegi bat (bi eraikin) LHn 3 ordutegi Koordinatzeko arazoak dakar eta kohesioa galtzen da. Eskolako antolaketa orokorrerako zailtasun handia (zaintzak, ziklo desberdinen arteko koordinazioak, klaustroak egiteko, formazioa jasotzeko, ...		
Esklusiben banaketa	Mailaka eta zikloa biltzeko aukera.	Beste zikloekin edo etapakoekin biltzeko eta koordinatzeko zailtasuna	Ordutegi desberdinak ditugulako.	
Laguntza eta errefortzuen eraginkortasuna	Gela guztietan irakasle bat sartu izan da errefortzu saioak ematera (astean 3 saio)	Tutorea eta laguntza eman behar duen irakasleen artean batzutan koordinazio falta.		Tutore bakoitza ondoko gelara sartzea laguntzak ematera.

Organo kolegiatuen funtzionamendua	Ondo funtzionatu du.	Ordutegiak dakartzan oztopoak.		
Pertsona bakarreko karguen funtzionamendua	Talde kohesionatua izateak lana erreztu du. Horrela etorkizunera begira hainbat proiektu aurrera eramateko ilusioa daukagu.	Erabaki batzuk ez dira denon gustokoak izaten.		Gure asmoak argi azaltzen jarraitzea.
Guraso elkarte	Aurrera eramatea nahi izan ditugun proiektuetan dirua jarri dute.	Hastapenak. Guraso elkartearen lehen urtea izan da eta denbora eman dute kokatzen.		<ul style="list-style-type: none"> - Ikasturte hasieran bilera bat egin guraso elkartekoekin. - Guraso arduradunekin bilera bat egitea proposatuko diegu.

Laburpena eta ondorioak

3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak

Esperientziak, programa edota berrikuntzak ikastetxean

KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
Aurten egindako bileraren ildora gure ikastetxearen autodiagnostikoa egin da.	2019/20 ikasturtera begira autodiagnostiko honen emaitzei erantzuna emate aldera hobekuntzak planifikatuko dira. Hurrengo ikasturtean ere plan estrategikoa egitea tokatzen zaigu.

NAHIKO PROGRAMA

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
IUPn jaso genuen bezala aurten bi irakaslek parte hartu dute programa honetan. Formazio saioetara joan dira eta gelan inplementatu egin dituzte bertan jasotakoak. Bi persona joateak ikastolaren funtzionamendurako oztopoak ekarri ditu (zaintza ordu asko)	Zikloan zabaldu egin behar dira bertan landutakoak. Hurrengo ikasturterako jolastokien inguruko hausnarketa egitea proposatzen da. Datorren urtera begira pertsona bat joatea proposatzen dugu.

BERTSOLARITZA

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
<ul style="list-style-type: none"> - 3. ziklokoek hamabostero eta euskarako klasean Bertsolaritza saioa jaso dute, beraien programa garatuz. Ikasleak oso gustura aritu dira eta hainbat ekintzetan parte hartu dute (San Andres Bertso paper Lehiaketa, Kurtso bukaerako jaialdia Koliseoan eta Ikastolakoan baita) - Ekintzaren helburua bete da: ikaslegoaren euskararen ahozko erabilera areagotzea. - Bestalde, euskararen kultur altxor hau (bertsolaritza) ezagutzeko aukera izan dute. 	Gela bakoitzeko tutorearen inplikazioa nabarmena da eta oso positibotzat jo da, beraz horrela jarraitzea espero dugu.

LIBURUTEGIA

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
<ul style="list-style-type: none"> - Hamabostero, ikasleek liburutegiko arduradunarekin, irakurketaren zaletasuna bultzatzeko saioa izan dute. - Hainbat trebetasun garatu izan dituzte (material egokia nola aukeratu, informazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Liburutegian eta gelan egiten diren ekintzak osagarriak izaten saiatzea. - Liburutegia irakaslegoaren proposamen eta premiei irekitako esparrua izaten jarraitzea.

<p>aurkitzeko bide desberdinak, gaiarekin lotutako bideoak ikusi, ...)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Data zehatz batzutan hainbat ekintza osagarri antolatu dira bertan (Azaroak 25, San Andresak, Arimen gaua, inauteriak, Martxoak 8, Liburuaren eguna, Hezkuntzaren aldeko Munduko kanpaina, LGTB Maiatzak 17, ...). - JOSE RAMON SOROIZ (Euskararen motibazio saioa: "Tramankuluak eskolan") - "Idazleak ikastetxean" egitasmoarekin bat egiteko 4. Mailako ikasle guztiek Leire Bilbao idazlearekin egoteko aukera izan zuten. - Irakurketa plana osatu da eta ikastolan "Txoko goxua" txertatu dugu. Ikasleen artean harrera ona izan du. Bertara bai jolasorduan baita bazkal ondoren ere irakurtzera joan daitezke. 	<ul style="list-style-type: none"> - "Txoko goxua"ren antolaketa planifikatzea eta zehaztea, eta bere erabilera sistematizatzea. - "Txoko goxo"ko liburuen zerrenda egitea.
--	---

BULARRETIK MINTZORA

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
<p>Aurten "BULARRETIK MINTZORA"ko egitasmoarekin amaitu dugu. Proiektu honen helburua haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea izan da.</p> <p>Haur Hezkuntzan zein Lehen hezkuntzan era sistematikoan landu dute.</p> <p>Haurrengan motxila etxera eraman eta liburutegira joan beharrak motibazioa piztu du.</p>	<p>Nahiz eta aurten proiektuekin amaitu, HH eta LHn hurrengo ikasturteetan sistematizatu egingo dugu eta lantzen jarraituko dugu.</p> <p>LHn eta HHn "motxila ibiltaria"rekin jarraituko dugu hasiera-hasieratik.</p>

"ETWINNING" ETA "MY EUROPE" PROIEKTU EUROPEARRA

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
<ul style="list-style-type: none"> - Europar ikastetxeen arteko sare antolatuetan parte hartzeko asmoa zegoen. - Ez da jarraipenik egon 	<ul style="list-style-type: none"> - Horrelako proiektu batean sartzen garenean jarraipen bat ematea komeni da.

IRRATSAIOAK IKATOLAN H.H. ETA L.H.

Ondorioak	Jarraitzeko proposamenak eta baldintzak
<p>Azkenengo urteetan ahozketasunaren inguruan landutako jarduerak unitate didaktikoetan txertatu ondoren, eta praktikotasun bat emateko asmoarekin, 3 eraikuntzetan irratsaioa sortzea erabaki zen.</p> <ul style="list-style-type: none"> - LHn izandako jarraipena egokia izan da. Talde guztiek parte hartu dute. Haurrak motibaturik egon dira. - HHn aurrera eramatea zaila egin zaie (2 eraikin desberdin, sare falta, ...) 	<ul style="list-style-type: none"> - Irratsaio bakoitzaren balorazioa egitea ikasleekin (autoebaluazioa). - LHn eta HHn aurrera eramatea eta sistematizatzea. Audacity programa erabili (honen funtzionamendua ezagutu) HHn batez ere, grabaketak modu errazago batean egin ahal izateko. - UDkoetan lantzen ari direnekin lotura izatea.

3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala

Ikastetxearen prestakuntza proiektu edota ekintzen balorazioen laburpena eta ondorioak [deialdi ezberdinen barruan]

TITULUA:

P.E.G (Prestakuntza Ekimnen Globala) Irakurketa Plana

	1	2	3	4	5	6
Prestakuntza gaien egokitasuna					x	
Parte hartzaileen bertaratze eta inplikazioa						x
Saioen egutegi eta ordutegiaren balorazioa						x

Ondorioak	Hobekuntza proposamenak
Irakurketa plana sortzeko oso lagungarria izan da jasotako formazioa. Portalean egin diren hitzaldiak (Irakurzaletasuna eta irakurtzen ikasi) oso interesgarriak izan dira. Eguneratzeko oso aproposak.	2019/2020 ikasturte hasieran Javi Azpitarte etorriko da klaustroan formakuntza ematera. 4 saio emango ditu. HHrako baliagarria izango den formazioa jasotzea ere komenigarria ikusten da (HHn aditua den pertsona bat ekartzea proposatzen da). Gure ikastetxean sortutako dokumentua datozen urteetan inplementatzen joango gara. Urteko planean landuko diren helburuak txertatzen joatea aproposa izango litzateke.

TITULUA:

P.E.G (Prestakuntza Ekimnen Globala) BIZIKASI EKIMENA

	1	2	3	4	5	6
Prestakuntza gaien egokitasuna						x
Parte hartzaileen bertaratze eta inplikazioa						x
Saioen egutegi eta ordutegiaren balorazioa						x

Ondorioak	Hobekuntza proposamenak
Berritzeguneko aholkulariaren laguntzarekin jazarpenaren kontrako proiektu bat burutu dugu. Familia, langile eta ikasleei sentsibilizazio saioa eman zaie. 2 ikasturteko lana egin da. Eta IUP an ezarritako helburuak bete ditugu.	Sentsibilizazioa familia guztietara helarazteko gelako bilerak erabiliko ditugu eta bertan, informazio guztia eman. Gai hau urtero lantzea komeni da eta horretarako tutoretza saioetan sistematizatuko da. Protokoloa moldatzen denean gure proiektua ere moldatu beharko da.

Ikastetxearen beste prestakuntza proiektu edota ekintzen balorazioen laburpena eta ondorioak

TITULUA:

BERDINDU

	1	2	3	4	5	6
Prestakuntza gaien egokitasuna						x
Parte hartzaileen bertaratze eta inplikazioa						x
Saioen egutegi eta ordutegiaren balorazioa						x

Ondorioak	Hobekuntza proposamenak
Aniztasunaren gaia tratatu dugu. 2 saio teoriko eta beste praktiko bat izan dugu. Klaustroa sentsibilizatzeko eta begirada aldatzeko balio izan digu. 6. mailako ikasleek ere jaso dute sentsibilizaziorako formazioa.	Gai honen inguruan lanean jarraitzea. Tutoretza saioetan jarduerak txertatu eta sistematizatuko dira.

3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala

Irakasleriaren ikastetxez kanpoko prestakuntza ekintzen balorazioa [lan-ordutegian]

Irakaslea	Ikastaroa edo mintegia	Balorazioa			Ikastetxeari ekarpenak	Hobekuntza proposamenak
		Bertaratzea	Inplikazioa	Asebetetasuna		
Amaia Abanzabalegi Eneritz Aristregi	Zuzendaritza t. mintegia	100%	100%	100%	Bertan jasotako guztia klaustro osoarekin eskolan partekatua izan da.	Datorren ikasturtean ere parte hartzea.
Alaika Igarza Andoniñe Zubikarai	Aholkulari eta PT mintegia	100%	100%	100%	Bertan jasotakoa eskolan partekatua izan da.	
Arantzazu Delera	ACEX mintegia	100%	100%	100%	Bertan jasotakoa eskolan inplementatua izan da.	
Ima Berasaluze	Agenda 21	100%	100%	100%	Bertan jasotakoa eskolan partekatua izan da.	
Idoia Muguruza Asier Duran	Kalitate bilerak	100%	100%	100%	Bertan jasotakoa eskolan aplikatu da.	Egindako autodiagnosia klaustroari zabalduko zaio 2019-20 ikasturte hasieran.
Maria Amiano	Hezkidetz mintegia	100%	100%	100%	Bertan jasotakoa eskolan partekatua izan da.	
Eneritz Aristregi Miren Larrañaga	Bizikasi II	100%	100%	100%	Bertan jasotakoa eskolan partekatua izan da.	
Nerea Roteta Rosa Baglietto	Hizkuntza mintegia	100%	100%	100%	Bertan jasotakoa eskolan partekatua izan da.	Datorren ikasturtean mintegian parte hartzen jarraitzea.
Maria Amiano Bea Resa	Nahiko programa	100%	100%	100%	Bertan jasotakoa eskolan partekatua izan da.	
Ima Berasaluze Nerea Roteta Aiora fernandez	IRALE	100%	100%	100%	Jasotakoa eskolan partekatu da.	

Ikastetxearen formakutza planarekin lotutako lan-ordutegitik kanpoko prestakuntza ekintzen balorazioa

Irakaslea	Ikastaroa edo mintegia	Balorazioa			Ikastetxeari ekarpenak	Hobekuntza proposamenak
		Bertaratzea	Inplikazioa	Asebetetasuna		
Idoia Muguruza Ana Delgado Elisa Rodriguez	IK/KI UIK eko ikastaroa	100%	100%	100%		
Amaia Abanzabalegi Eneritz Aristregi Miren Astola Simone Begiristain Aiora Fernandez	Haur Hezkuntzan oinarriak ehunduz	100%	100%	100%	2019-20 ikasturterako proposatutako proiektua aurrera eramateko baliabide osagarri bat izan daiteke.	

3.1.1. Irakasleriaren koordinazioa

Lan taldeak	Partaideen kopurua	Taldearen funtzionamendua (maiztasuna, dinamika, gogobetetasuna)	Egindako ekarpena	Hobekuntzarako proposamenak
Talde Pedagogikoa	Zuzendaritza taldea LHko 3 Koordinatzaile HHko 1 koordinatzaile Aholkularia	Astean behin burutu da, astelehen arratsaldean. Eskolan sortzen diren gai Pedagogikoak eta antolakuntzari dagozkionak (jaialdi, ...) jorratu dira. Bileren eraginkortasuna lortze aldera gaiordena idatzia eraman da.	- Mailetako/Zikloetako iritziak, beharrak eta proposamenak bideratzea. - Erabaki pedagogikoak hartzea - Ikastetxearen planifikazioaz arduratzea.	- Zuzendaritzan hainbat erabaki hartu baino lehen ziklo bileretan ondo aztertu. - Ikastetxean ditugun hainbat proiektu eta lan aurrera eramateko, koordinatzaileak zikloetan egin beharreko lanaren sustatzaileak izatea.
Mailakako koordinazioa	3 tutoreak + Laguntzako irakaslea edo PTa.	Astero ordu bat Mailan sortzen diren gaiak aztertu eta bideratu.	- Mailako planifikazioa antolatu - Ekintza osagarriak zehaztea eta antolatzea - Mailako gatazkei aurre egin	- Biltzen jarraitzea. - Helburuak zehaztea.
Zikloko bilerak	6 Tutore 2, 3 espezialista (ziklo horretan lana egiten duten irakasleak)	Hilean 2, 3 aldiz gutxi gorabehera	- Talde Pedagogikotik heltzen diren gaiak landu. - Zikloko iritziak, beharrak eta proposamenak landu.	Zikloari edo ikastetxeari dagokion informazioa idatziz zabaldu daiteke eta zikloa hausnarketak egiteko eremua bihurtu.
Lan taldeak <ul style="list-style-type: none"> • Kalitatea • Euskaraz Bizi • Agenda 21 • Elkarbizitza • Hizkuntza 	4 partaide 4 partaide 4 partaide 6 partaide 6 partaide	Astero ordu bat Astero ordu bat Astero ordu bat Astero ordu bat Astero ordu bat	- Arloaren koordinazioa - Ekintza osagarriak antolatzea / planifikatzea - Proposamenak luzatzea - E-mailak edota balorazioak egitea - Landutako gaiak eskola Komunitateko partaide guztion ardura dela sentitzea.	- Proposatzen diren ekintzetan lehentasunak ondo markatu eta irakasle goa informatu(IUP, Koordinatzaileen bidez, irakasle gelako panelean ...) - Eskola komunitatearen inplikazioa ziurtatu. - Urte guztiko planifikazioa egitea.
IKT	4 partaide	Astero ordu eta erdi	- Iaz erabakitako konpromezu batzuk mantentzen saiatu gara. - Web orria eguneratuta mantentzea.	- Korreoen erabilera komunikaziorako ziurtatu (irakasle eta ikasleen artean) - Blogak maila guztietan erabili, hornitu, ... - Drive-n erabilera (irakasle eta 3. zikloko ikasleen artean) - IKT-en arriskuak. - Klaustroari formakuntza zehatza ematea - Web-a aberastea, berritzea.

3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarriak

Programaren balorazio kuantitatiboa

	1	2	3	4	5	6
Antolakuntza					x	
Helburuekiko lotura					x	
Denbora /indarrak/emaitza lotura				x		
Ekintza eta gastuaren arteko lotura					x	

Programaren balorazio kualitatiboa

Zailtasun nagusiak	Zergatiak
<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza bateratuak egitea. Zikloka egitea proposatu ditugu ordutegian aldaketarik ez sortarazteko. - Urtean zehar suertatu izan diren premiak asetzeko proposatu ditugun ekintzak edota formakuntzak (Berdindu, ...) egutegian txertatzea. - Ekintza osagarrien pilaketa hainbatetan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eraikin bakoitzaren kokagunea eta ordutegi desberdinak izatea. - Hainbat ekintza eta jarduera sistematizatuta izatean besteak txertatzeko toki gutxi geratzen zaigu. - Karguan berriak izatean askotan, gainera etorri zaizkigu hainbat data eta ekintza.

Programaren balorazio orokorra, ondorioak eta hobekuntza proposamenak

<ul style="list-style-type: none"> - Zaila egiten da 3 ordutegi eta 3 eraikinekin koordinazio on bat egitea. Hurrengo ikasturtean ordutegi aldaketa proposatuko dugu. - Hainbat ekintza aurreikusita izanda, ikasturte osoko PLANIFIKAZIOA egutegi batean txertatuko dugu guztiok ikusteko. Ebaluazio saioen datak, formazio egunak, ... honez gain, hileko planifikazioa irakasle gelan jarriko da. - Ekintzak egiteko, irakasleen arteko koordinazioa, ardurak eta eginbeharrak modu egokian banatu. - Haur Hezkuntza eta Lehen hezkuntzarako formazio bateratua proposatzen dugu "Bikaintasunerantz proiekturaekin". Bi esparru jorratuko dira: psikomotrizitatea eta espazioaren eraldaketa.
--

4. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

ESKOLA KIROLA eta MENDIA

Programaren balorazio kuantitatiboa

	1	2	3	4	5	6
Antolakuntza					x	
Helburuekiko lotura					x	
Denbora /indarrak/emaitza lotura					x	
Ekintza eta gastuaren arteko lotura					x	

Programaren balorazio kualitatiboa

Zailtasun nagusiak	Zergatiak
Ikasleen partehartze desorekatua (entrenamendu edota partiduetan). Ume asko apuntatzen da eta guztiek ezin dute multikirola eskolan egin (bazkal ostean adib).	- Ikasleak ekintza askotan daude apuntatuta eskolatik kanpo eta batzuek multikiroletako ordutegiarekin bat egiten dute (futbola, ingelesa,...). - Familia batzuek arrazoi desberdinengatik (eguraldia, astebukaera kanpoan igarotzea, ...) ez dute hartzen partiduetara joateko konpromisorik.
Balorazio orokorra, ondorioak eta hobekuntza proposamenak	
Zaila da familia guztien antolaketa egokitzea. Familiei umeen parte hartzearen garrantzia komunikatu eta haiek parte har dezaten animatu.	

ACEX/LIBURUTEGIA

Programaren balorazio kuantitatiboa

	1	2	3	4	5	6
Antolakuntza					x	
Helburuekiko lotura					x	
Denbora /indarrak/emaitza lotura					x	
Ekintza eta gastuaren arteko lotura					x	

Programaren balorazio kualitatiboa

Zailtasun nagusiak	Zergatiak
Bazkal ostean ikasleek denbora laburra dute 1. eta 2. mailetarako antolatzen diren tailerretan parte hartzeko.	Jantokian dugun sistema, ikasleak banaka banaka sartzera behartzen ditu eta horrek sarrera luzatzen du, gelditzen zaien denbora murriztuz.
Balorazio orokorra, ondorioak eta hobekuntza proposamenak	
2019/2020 ikasturteari begira eguerdiko bazkal orduko antolaketa aldatu egingo da eta nola moldatzen garen ikusiko dugu. Haur guztiak elkarrekin sartuko dira.	

5. ESKOLAKO ZERBITZUAK

JANTOKIA

Zerbitzuaren balorazio kuantitatiboa

	1	2	3	4	5	6
Antolakuntza						x
Helburuekiko lotura						x
Denbora /indarrak/emaitza lotura						x
Ekintza eta gastuaren arteko lotura						x

Zerbitzuaren balorazio kualitatiboa

Zailtasun nagusiak	Zergatiak
Aurretik zegoen funtzionamendu eskasa dela eta eguneratzea suertatu zaigu.	Inplikazio eza.
Balorazio orokorra, ondorioak eta hobekuntza proposamenak	
Aurten izandako arduradunaren ordezkioak egindako lana izugarri ona izan da 3 jantokietako funtzionamenduari bultzakada handia eman diolako. Ikasturte hasieran jangelako begiraleak gelaz gela joan ziren beren burua aurkeztera. Eskolako komunitate osoko elkarlana ikustarazi zitzairen. 19-20 ikasturteko hasierako bileran begiraleekin adostuko da emango diren jarraibideak.	

GARRAIOA

Zerbitzuaren balorazio kuantitatiboa

	1	2	3	4	5	6
Antolakuntza						x
Helburuekiko lotura						x
Denbora /indarrak/emaitza lotura						x
Ekintza eta gastuaren arteko lotura						x

Zerbitzuaren balorazio kualitatiboa

Zailtasun nagusiak	Zergatiak
Balorazio orokorra, ondorioak eta hobekuntza proposamenak	
Ondo funtzionatu duen zerbitzua izan da.	

GOIZEKO GELA

Zerbitzuaren balorazio kuantitatiboa

	1	2	3	4	5	6
Antolakuntza						x
Helburuekiko lotura						x
Denbora /indarrak/emaitza lotura						x
Ekintza eta gastuaren arteko lotura						x

Zerbitzuaren balorazio kualitatiboa

Zailtasun nagusiak	Zergatiak
Balorazio orokorra, ondorioak eta hobekuntza proposamenak	
Ondo funtzionatzen duen zerbitzua da. Gurasoek kudeatzen dute.	

6. EKONOMIA-KUDEAKETARAKO PLANAREN EBALUAZIOA

Aplikazio informatikako orria inprimatu non aurrekontua kapituluka eta bere betearaztea adierazten den. Ondoren, plana baloratu eta ondorioak atera, finantza - baliabide banaketaren irizpideei begira (IUPean proposatuarekiko koherentzia)

Ikusi [2. eranskina](#)

Ondo ibili dena	Hobetu beharrekoa
Aurrekontua bete egin da. Hornitzaile guztien fakturak epean ordaindu egin dira. Komuneko paperaren dispensadoreak aldatu egin dira eta asko murriztu da paperaren erabilera.	Material fungiblearen kudeaketa. Urtero egiten diren fotokopia kopurua oso handia da testuliburuak erabiltzen ditugula kontuan harturik.

Hobetzeko proposamena

Material eskaera egiteko modu sistematizatzea. Eskolan egon beharreko stocka zehaztea Egiten diren irteera didaktikoen fakturak (sarrerak eta autobusak) zuzenean Guraso Elkarteari heltzea.
--

7. HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIO PLANA

Eskola komunitaterako informazio bideen balorazioa

bideak	erabiltasuna		maiztasuna		balorazioa, ondorioak eta hobekuntza proposamenak
	bai	ez	askotan	gutxitan	
bilerak	X		X		Gero eta gehiago erabiltzen dugu geletako arduradunen watsapa bat-bateko informazioa azkarrago helarazteko. Irakasleen artean sortutakoa ere erabilia izan da informazioa partekatzeke. Honetaz gain ahikoak diren bideak jarraitu ditugu informazioa helarazteko.
elkarrizketak	X		X		
bisitak	X		X		
informeak	X		X		
aldizkariak		X			
web gunea	X		X		
posta elektronikoa	X		X		
posta arrunta	X		X		

IUPa ezagutarazteko eta onartzeko planifikazioaren balorazioa

	egin da		zergatiak [egin ez denean]	hobekuntza proposamenak
	bai	ez		
IKASLERIA		X		2019-20 ikasturtean aurreikusten ditugun jarduerak partekatzea ondo legoke.
IRAKASLERIA	X			
FAMILIAK	X			
OOG-OMR	X			
ADMINISTRAZIOA	X			
BESTE ERAKUNDE	X			

8. IUP-REN GARAPENAREN JARRAIPENAREN EBALUAZIOA

	A	B	Zergatiak [B kasuan]	Hobekuntza proposamenak
	bai asko handia	ez gutxi txikia		
Aurreikusitako tarteko ebaluazioak egitea	x			Jarraipena ikuskariarekin egiteaz gain, klaustroko kideekin ere egitea. Datorren ikasturteko IUPren garapenaren jarraipenaren planifikaziorako, adierazle zehatzak, jarraipen datak eta ezagutu arazteko estrategiak hobetu beharrean aurkitzen gara.
Erabilitako metodologiaren baliotasuna: datuen azterketa, akordioak ...	x			
Ikastetxeko komunitatearen partaidetza.	x			
OOGari informazioa	x			
Klaustroari informazioa	x			

9. ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Ondo ibili dena

Hobetu beharrekoa

<p>Irakaslegoaren etengabeko formakuntza ahalbidetu da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Alde batetik Eibarko Berritzeguneak antolatu dituen mintegietan eta formakuntzetan parte hartzea bultzatzea izan da gure helburua. • Beste alde batetik NAHIKO programan parte hartzen ere bultzatu dugu. <p>Orokorrean ondo funtzionatu dugula esan genezake:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa eta funtzionamendua egunerokotasunari erantzuna ematen ikasten joan gara ikasturtean zehar. • Ikasleen emaitzak onak izan dira. • Familiekiko hurbiltasuna bermatzen saiatu gara, eta beraien eskakizun eta ardurei erantzuna ematen ere. <p>Berrikuntzen alde egin dugu: H.H.ko Argatxa eraikuntza dela eta, hainbat bilera egin ditugu daukagun egoera hobetzeko. Honekin batera ASPACEkoekin elkarlanean aritu izan gara inklusioaren alde eginez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udaletxeko eta Hezkuntza saileko agente desberdinekin harremanak bultzatu ditugu. • ASPACE-ARGATXA lotzen saiatu gara. <p>2019-2020 ikasturterako HH eta LH (lehen ziklo) espazioen eraldaketaren inguruko formazioa jasotzeko asmoz “Bikaintasuneruntz proiektua” aurkeztu dugu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hainbat momentutan, geletan ekintzen pilaketa egoten denez, lehentasunak markatu edo kontutan izan planifikatzerakoan ahal den heinean. • Irakasleen arteko koordinazio bertikala ziurtatu eta elkarlanean aritu. • HPB duten haurren familiekin “goxotasuna” bermatu. Ikasturte hasieran tutoreak eta zuzendaritza taldeko kideak familiekin biltzea.
---	--

Hobetzeko proposamenak [datorren ikasturteari begira]

<p>2019-20 ikasturtean egitekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kalitatearen ildotik jarraituz Ikastetxeko plan estrategikoa planifikatu eta burutu. (IHP aren oinarria izango da eta hau osatzeko falta zaizkigun arloak txertatuz joango gara). - Programazioetako mailako minimoak antolatu. - 5 eta 6. mailetako U.Dak amaitu. - Ebaluazioa landu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Mintegia sortu ▪ Berritzeguneko mintegietan parte hartu. - Talde Kohesiorako estrategiak lantzen jarraitu eta sistematizatu. - Tutoretza plana berriztu - Matematikako mintegian parte hartu (PEGaren barruan) - HTB (Hizkuntzaren trataera bateratua) osatu eta Irakurketa Plana inplementatu. <p>Hauek guzti hauek aurrera eramateko talde Pedagogikoko eta mintegietako partaideak eman behar diren pausoen bultzatzaileak izango dira eta haien arteko lotura ezinbestekoa izango da.</p>

Eranskinak